

ITZIAR

Ezta gipuzkoarrik Itziar ezagutzen ez duenik. Debako auzo hau, herriaren ekaldetik dauden hegien lepo gain batean kokaturik, Andutz mendiaren babespean eta itsas-hegalera begira aurkitzen da, Bizkaiko mugatik hurbil, paraje eder batean. Gipuzkoako hiri-rik zaharrenetako bat da eta bere berrien lehen agiriak XI. mendekoak dira. Eliza gotiko apal bat du Andra Mariren izenean eta imajina erromaniko bat gordetzen du, Santio-bideko erromesak igarotzean atsedean leku eta itsas-gizonak izar-gidaritzat hartua zuten Erdi-arotik.

Nafarroako errege Santxo Nagusiaren garaian, 1027. urtean, Iruñako elizbarrutian agertzen da. Handik laster Gipuzkoako mugatzat, Itziartik Durangora bitarteko lurraldean, Arabaraino (gaurko Debarrua eta Markinaldea barne hartzen dituela), Bizkaiarekin mugatzeko utzi zen lurraldea bereizteko egin zen tratuzko agirietan ere bai.

Baina ikus dezagun gaur egun Itziarrek zer duen bereziki.

Eliza, esan bezala, aspaldiko denbora haietatik aipamen bereziz heldu zaigu. Bizkai-Gipuzkoetako itsas-gizonak Itziarrentzat izan duten debozioa argi azaltzen zaigu Juan de Esnaolaren *Santa Maria de Iciar* deritzan obran (Bergara, 1927). Liburu honen 91-100 orrialdeetan ikutzen bai du gai hori. Bertan jasotzen ez duena, eta itsas-gizonak Itziarri zioten maitasuna egoki adierazten duena, Elkanoren hilburukoa da. Munduaren bira lehen aldiz eman zuen getariarrak, 1526 Pazifikoko uretan egin zuen testamentu hartan, bere deboziozko zituen elizekin oroitu zen eta Getariako parrokiarentzat 6 dukat urrezko utzi zituen, Askizuko San Martin ermitarako 12, Sasiolako Monastegirako 10, Hondarrabiako Guadaluperako 6, beste zenbait eliza eta ermitetarako dukat bana, baina Itziarrerako 40 dukat urrezko.

Hor agertzen da itsas-gizonek nolako zaletasuna zuten Itziarko Andra Mariarentzat.

Elizan, esan bezala, Birginaren imajina erromaniko polikromatua gordetzen da, XII. mendearen azkenaldikoa edo XIII.aren partekoa, Aita Lizarraldek bere iker-lanetan agertzen duenez. Hau da Itziarrek lehengo arte ageri zaharretatik baliagarriena. Gipuzkoan, bertan, Irungo Junkal Andra Mariaren ondorengoa dugu zahartasunez.

Garai hartako Itziarren lurraldeetan, XIII. mendearen azken partetik XIV.a zehar izan zen merkatalgoaren hazkuntza, Deba ibaiaren irtera berean kokaturik, eta hiri berri bati eman zion hasiera, mende baten buruan Itziar bera baino handiagoa izatera helduko zena; gaurko Deba. Herrialdearen administralgoa, denborarekin, hona pasatuko zen eta Itziar auzo soil bihurtu.

Aintzinako denboren agiriz, Andra Mariaren irudiaz gainera, hor gelditzen zaigu eliza bera, gotiko egiturazkoa, XVI. mendean XIV.ekoaz baliaturik berriro eraikia. Zuloitarte batekoa, sabai gurutzatuz, hamabost metro t'erdi ditu zabaleran eta hogetahamar doi doi luzeran. Arkitektura serioa, apaingarri gutikoa. Onofre Larunbe eta Maria A. Arrazolaren lanetan ongi estudiatua dator.

Bere barnean, Andra Mari erromanikoaz aparte, erretaula zoragarri bat gordetzen du. Erretaula hau Pizkundearen hasieretako dugu, plateresko deitzen diren hoietakoa eta estilo honetan ames egin ahal genezakeanik hoberenetakoa noski. Arte obra onekin maiz gertatzen den bezala, nolabait ere egile baten izenpean babestu nahia, arteak berez ona izatea aski ez balu bezala. Egileren bati erantsi nahiak ekarri dio Itziarko erretaulari nahikoa eztabaida. Esnaolak bere lanean Jose Aldazabal zenaren ageriak azaltzen ditu, erre zen artxibo zaharrean oinarritu ezinik, erretaularen egiletzat Andres Araoz jartzeko eta Georg Weise alemanaren iritzien kontra jartzen da. Baina, esanak esan, alemanaren begi zoliak aski argi utzi zuen Eibarko elizako erretaula egin zuenaren eskua eta Itziarkoa egin zuenarena ez zirela esku bera. Eta, uste dut arrazoi handia zuela Weise-k.

Itziargo erretaularen egile izenik ez badakigu ere, ez dio Eibar-koari zorrik, eta estiloz era hau baino lehentxoagokoa da. Azken berria, J. M. Agirrebalzategi oñatiar jatorragandik jakin dut; jatorra bezain langile den jaun honek Protokoloetako paper zaharretan aurkitu du Araoz-ek polikromatua izan zela Itziargo erretaula.

Argibide hontatik ikus genezake, Aldazabalek, seguru asko, polikromatze eta erreztatzearen berria izan zuela eta hortik nonbait iduritu zitzaiola eskultura ere berea izango zela, zeren A. Araoz garai haietarako eskultore ospetsua izango zenez.

Behar bada noizbait zerbait aurkituko da argi gehiago emango diguna, baina oraingoz, Itziargo erretaularen egile izenik ez dugu ezagutzen; baina honek ez dio ezer kentzen Bergarako San Pedrokoakin batean Gipuzkoan den plateresko erretaula onena izatetik.

Aipatu dugun polikromia, erreketaren baten ondorean galdu zuen eta gaur egun zurezko irudiak soil soilik nabari dira, eskulturaren edertasunean ezer galdu gabe.

Elkanoren hilburuko diruz egina ote da? Hau da beste gauza zalantzarri bat. Juan Sebastian Elkano getariarrak bere ondasunak hilburukoz banatu zituen, baina hil zenean apenas zuen dirurik. Testamentuan banatu zuen dirua haina hartzeko bai, bazuen; batez ere erregeak, orduko gobernariak, dirutza handia zor zioten Elkanori. Kobratu ote zen? Hara hemen gure historiaren ikerketetan oraindik bete gabea. Egunen batean jakingo ahal dugu.

Dena dela, Itziarren, aipatutakoez gainera beste gauza ikusgarririk ere bada eta hauen artean, eskubialdeko aldean aurkitzen den sagrario tipi bat, Antxieta eskolako eta behar bada bere ikaslerik argienetakoa irten zen Bengoetxeak egina.

Azkenik, esan dezadan, gure arte balioak hain ugari ez direlarik ere, zer pena ematen duen hain abandonatuak ikusteak. Itziargo erretaula. Gipuzkoako erretaula platereskoetarik onena noski, pipiak joa dago eta ahalik lasterren sendakuntza eskatzen du. Agintari eta herri, guzion artean ez ote da ezer egiteko modurik? Gure herri nortasuna ez dezagula jan-edanean diruak emanaz eta indarrezko ahalmenak soilik erakutsiaz agerrera, herriarenganako maitasunak hori baino gehiago eskatzen du.

J. SAN MARTIN